73. zenbakia - 2008ko ekaina

# artzape

GETARIAARRON TOPAGUNEA

EMETERIO URRESTI

] MARIBELI ELKARTASUNA

PILOTARI GAZTEEN HARROBIA]

## ELANen lankidea Venezuelan

# René Bros

TXOKO
ERRETEGIA

kaia gainean. Tlf. 943 140 539

OSTOLAZA
EDARITEGIA
kaxuelitak eta
plater konbinatuak
Elkano, 33 Tel.: 943 140 214

Saiazgetaria
HOTELA
BILERA GELA DAUKAGU
Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa
T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

SAN PRUDENCIO
JATETXEA
JATETXEA - ERRETEGIA
20808 GETARIA
(ERREPIDETIK 600 METRORA)
IKUSPEGI BIKAINAK
943 14 06 27 - 943 14 04 11

OSTOLAZA
ANAIAK
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110

kutxa

ITSAS
MENDI
gutiziak
Kaia z/g
Tel.: 943 140 993
Mugikorra: 649 947 855
www.maisor.com
20808 GETARIA

BABEXA
Getariako dendari elkartea

ENBATA
Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA 943 424797

ELKANO
Jatetxea
Herrerieta, 2
Telefonoak: 943 14 00 24
943 14 06 14
20808 GETARIA

POLITENA
GURE BEREZITASUNAK:
• Aste egunean:
Eguneko Menua
• Jai egun eta Asteburuetan:
Luxuxko Pintxoak,
Bokatak eta Razioak.
• Eramateko eskaerak:
• Wi-Fi zerbitzua.
GETARIA
Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

ERROTA

OPIL - OKINDEGIA
Elkano, 7
Tel.: 943 140 017

KAIA - KAIPE JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

INDAUX
Tel.: (+34) 943 899 100 Fax:(+34) 943 899 101 indaux@indaux.com
INDUSTRI AUXILIARRAK (INDAUX), S.A. SAN PRUDENTZIO, S/N. 20808 GETARIA
APDO. 132. E-20800 ZARAUTZ (GIPUZKOA) www.indaux.com

*“Uztaileko harrabotsak, laket ditu mahatsak”*

# artzape

**73. zenbakia**

# 2008ko ekaina

]5/Inkesta:
**Turismoa**

]6-7/Getarian zer berri?
**Maribeli elkartasuna**
**Pilotari gazteen harrobia**

]8-11/Elkarrizketa: **René Bros**

]12-13/Argazkien Txokoa:
**Euskal Astea**

]14 -16/Elkarrizketa: **Emeterio Urresti**

]19/ELAN-EUSKADI

]20/Historiaren katebegiak:
**Erroma eta itsasoa**

]23/Akordatzen: ***1936ko bataioa***



artzape
Eskualtxeta kulturgunea
Krixketaneko Iturrigaina

Tel.: 943 00 05 48
artzape@topagunea.com

Gure Txeru Elkartea

[argitaratzailea] Gure Txeru Elkartea [koordinazioa] Amaia Iribar eta Maider Ostolaza [lan taldea] Izaskun Larrañaga, Monika Uzkiza, Ane Azkue, Jon Illarramendi, Josune Urresti, Kepa Iribar, Imanol Iribar, Zigor Saizar, Amets Etxabe, Irantzu Ezenarro, Aitor Irigoien, Beñat Gereka, Mikel Mugika [kolaboratzaileak] Jose Ignazio Atorrasagasti “Pana”, Xabier Alberdi eta Suso Perez [maketazio berria] Vicente Dávila [argazkiak] Artzape [publizitatea] Artzape [inprimaketa] Gertu[tirada] 1.150 ale [lege gordailua] SS-504/01 [ISSN] 1578-469X

**Getariako Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

# ] gutunak

LASTER ARTE

Batzuek aspalditik ezagutzen zaitugu. Orain 23 urte, zortzigarren mailan geundela, tutore izan zintugun; pazientzia amaigabea izan zenuen guztiokin.

Beste batzuek zu gelan ikusita izan dute zure goxotasunaren berri; gure seme-alabengan zure oihartzun.

Badugu eskolako oroitzapenak bizi dituzun une zail hauetan lagungarri gertatuko zaizkizun itxaropena, zuk gure haurrei hazten eta hezten laguntzen diezun bezala.

Lehenbailehen berriro ere gurekin izan zaitezela, besterik ez dugu espero, Maribel; zauden tokitik kanpo, tokatzen zaizun tokian, kalean, etxean, gure haurrekin eskolan.

Irantzu Ezenarro Egurbide

BERTSO-ESKOLA

"Habaneratik Alamedara" edo "Alamedatik habanerara". Ez dakit zein izen duen egokiagoa Getariako bertso-eskolak. Bertso taldea gara eskola baino gehiago. Aurten inoiz baino konplizeago eta gertuago sentitu ditut gainera.

Aurreko ostegunean, ikasturteko azken egun bezala, Ixkote elkartean afaria egin genuen, eta inoiz ahaztuko ez dudan uneaz gozatzeko parada eskaini zidaten oraindik ere andereño deitzen didaten ikasleek. Dozena lagun elkartu ginen, eta esan beharrik ez dago ni joaterako dena prest zeukatela. Joan, eseri eta afaldu.

Afalostean, elkarri irrifar egin, eta bost lagun komunera joan ziren. Handik hiru gitarra, perkusio kaja eta tronpeta atera zituzten. Ez zuten ezer sartu, atera baizik. Zoragarria izan zen. Denera zortzi bertso kantatu zituzten. Lehen lau habanerak niri esker onez kantatuak, eta beste erdiak taldeari begira. Hunkigarria izan zen zinez. "Hauek bai aluak!" pentsatu nuen hasieran. "Hauek bai earrak!" sinistu nuen gero. Hona hemen adibide moduan lehen bertsoa:

*"Ikasturtea amaitzeko*
*iritsi zaigu garaia*
*eta ospatze aldera*
*montatu degu afaia*
*denok harrapatu degu*
*Amaiaren ikasgaia*
*bertsotan ikas dezagun*
*egin behar dela jaia*
*bera da gure sustraia*
*neska jator ta alaia*
*inguruan islatzen du*
*bere barruko dirdaia*
*beste behin erakutsiaz*
*zuk zeuk daukazun dohaia*
*munduko andereño onena*
*zera guretzat Amaia."*

Oraindik ere begiak bete egiten zaizkit. Lastima osteguna izatea, eta lan eguna biharamuna. Bi ordu bertsotan isildu ere egin gabe aritu ondoren, despedida moduan nik ere habanera bat kantatu nien, baina motz geratu nintzen, eta udan pare bat afari egingo ditugula adostu genuen arren, eskerrak eman nahi nizkien lerro hauen bidez. Ikaragarri maite eta estimatzen ditudala esan nahi diet beste behin, eta eman baino gehiago jaso dudala. Earrak zeate moxolos!! Mila esker bihotzez.

Amaia Agirre Arrastoa

ADIERAZPEN ASKATASUNA

Ekimen hau dela eta:

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 19. atalak honako hau jasotzen du hitzez hitz: Gizabanako guztiek dute iritzi eta adierazpen-askatasuna.

Getariako PNVk ordea, gure herrian, norbanako eta talde guztien eskubideak ez ditu errespetatzen. Egunero Ezker Abertzalearen kartel, pankarta eta aldarrikapenak kentzeko agindua emana dauka udal langileei, getariarrok gure aldarrikapenak zabaldu eta informazioa jasotzeko dugun eskubidea murriztuz.

Guzti honen atzean PNVk, Ezker Abertzalearen ihardun politikoari dion beldurra dago. Alderdi jeltzaleak, herri ireki, partehartzaile, ezkertiar eta demokratikorako Ezker Abertzaleak duen alternatiba isildu nahi du. PNVk gainera, 30 urte beranduago errepikatu nahi duen iruzur politikorako, Euskal Herriarentzat marko demokratikoa aldarrikatzen dugunon proposamena ikusezin bihurtu nahi du Getariako kale eta etxeetan. Eta horrexegatik bidaltzen ditu Udal langileak gustukoa ez duen guztia ezabatzera.

Baina alferrik ari da PNV! Ezker Abertzaleak orain arte bezala, lanean jarraituko du bestelako Getaria baten alde. Eta noski, gatazka politiko eta armatua gaindituko duen Euskal Herrirako marko demokratiko lortzeko eman beharreko urratsak ematen jarraituko du.

Alkatea eta bere udal gobernu antidemokratikoa direnez oinarrizko eskubideen etsairik handienak, adierazpen askatasuna exigitu eta demokraziari ateak ixten ari diren Udal agintariei aurre egiten segiko du Getariako Ezker Abertzaleak.

Nahia Iturbe
Getariako Ezker Abertzalea

Zure gutuna Artzapen argitaratzea nahi baduzu, Txeruko postontzian utzi, Eskualtxetara ekarri edo artzape@topagunea.com helbidera bidali zure izen-abizenekin. Gutunak gehienez 200 hitz izan beharko ditu eta luzeagoak direnak mozteko eskubidea izango du Artzapek. Ez dugu testu iraingarririk onartuko eta Artzapek ez du bere gain hartuko argitaratzen diren iritzien gaineko erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

# ] inkesta Aitor Irigoien, Beñat Gereka eta Mikel Mugika ]

**Uda, eguraldi onarekin, hondartzarekin eta oporrekin lotu ohi da. Kostako herria izanik, Getaria turistez eta kotxez betetzen da. Zenbateraino deritzozu onuragarria turismoa herritarrontzat? Zein dira bere alde onak eta zein txarrak? Herriko jarduera nagusi ala osagarri gisa ikusten duzu?**

**Mikel Azkue**

Nire ustez herriarentzat ona da, baina ez da aparte nabarmentzen den zerbait. Beraz, beste jardueren pareko gisa ikusten dut, arrantza eta baita nekazaritzarekin ere era egoki batean uztartu beharrezko zerbait. Horren harira, ez zait iruditzen gure herria benetan turismoa jasotzeko prest dagoenik. Herria polita da, kanpokoentzat erakargarria, baina gero askotan kaleak zikinak egoten dira, herria ez dago behar bezala zaindua. Turismoa behar bezala garatzeko oraindik ere akats asko ditugula iruditzen zait.

Alde batetik, herrira jende asko hurbiltzen da eta horrek herriari bizipoza ematen dio. Baina era berean, hainbeste jende etortzearen ondorioz, herrian aparkalekua topatzeko zailtasun handiak egoten dira eta hori arazo handi bat dela uste dut. Herritarroi zuzenean onura gutxi ekartzen digu turismoak, gehienbat jatetxeentzat da beharrezkoa. Baina horri esker, herriko jatetxeetan lanpostu gehiago egoten dira eta ona da herritarrontzat. Azkenik, aipatu dizkidazuen jarduera guztiak elkarrekin osagarriak direlakoan nago.

**Ion Irigoien**



**Aitor Arregi**

Alde onei dagokionez, nik usten dut ekonomikoki bizitza handia ematen diola herriari eta turismoarekin zerikusia duten lanpostu ugari sortzen direla. Herritarrontzat Getariak udazken nahiz neguan izan ohi duen xarma galtzen duela da ikusten dudan alde txarra; hau da, herria jendez betetzen da eta itsasoari begira lasai eta bakardadean egoteko parada gutxi izaten da udan. Bestalde, turismoa jarduera osagarri gisa ikusten dut; zorionez ala zoritxarrez, Getariak izen bat du. Itsasoko sektorea goraka ez doala dirudi eta nekazaritza jaisten ari den arren, txakolingintzan gora goaz zorionez. Sektore batzuk gora, besteak behera, denak elkarren osagarriak direla usten dut.

Gauza guztiek bezala, alde onak eta txarrak ditu, baina ondo kudeatzen jakinez gero, fruitu onak eman ditzake. Alde onetako bat beste kultura eta herrialdeko pertsonekin erlazionatzea da, oso aberasgarria baita hori herri batentzat. Baina lehen aipatu dudan bezala, jakin egin behar da hori ongi kudeatzen. Alde txarrak berriz, gestio eskas horregatik eratorritakoak lirateke. Herritarrontzat turismoa onuragarria dela iruditzen zait, begiratu besterik ez dago zenbat pertsonek lan egiten duten zuzenean edo zeharka turismoarekin zerikusia duten jardueretan: herrian 15 ostatu daude, taberna eta jatetxe ugari, dendak... Ondorioz, etorkizun batean, turismoa jarduera nagusi izango dela usten dut. Gaur egun ere zerk mugitzen du diru gehiago, arrantzak edo turismoak?

**Irune Zulaika**

## Artzapetik begira

**Cesar Blanco**

**Aterpeak eta zerupeak (1. zatia)**

Maiatza bukaeran Gure Txeru Elkartearen dantza emanaldia ospatu zen eta urtero bezala, dantzariek zein antolatzaileek eguraldiari begira eman zuten aurreko astea, beldurrez. Getaria emanaldi kulturaletan nahiko mugitzen den herria izanik, aterpe egoki baten beharra agerian da; behar hori batzuetan aterpe desmuntagarri bat alokatuz konpontzen da, adibidez, Txakolin festa denean, urtero diru gastu potolo bat eginda. Inoiz Txoritonpeko egitura iraunkorra aprobetxatu da. Gehienetan Berdura plaza izaten da alternatiba, batzuetan egokia, eta beste batzuetan zeharo eskasa. Balentziaga museoaren kasuan egitura erraldoiaren eraikuntza bultzatu da Udal zein beste erakunde publiko batzuetatik.

-Behar al du Getariak emanaldi kulturaleko aterpe egoki bat? - Aterpe hori, behar izanez gero, non eta nola kokatu beharko zen? Kalean sarri entzuten diren galderak ekarri ditut zutabe honetara, niri ere interes pertsonal zuzenak eta zeharkakoak eragiten dizkidalako. Kulturaren agerpen kolektiboak oso inportantetzat jotzen baititut bai partaide bezala, bai kontsumitzaile bezala. Interesak edonolakoak izanda ere zilegiak izaten dira ezkutatzen ez direnean eta interesak, aukerak, baldintzak e.a. ezagutu ostean kolektiboki erabakitzen denean. Hau da, gardentasuna eta gizartearen parte hartze efektiboa ematen direnean. Azken batean, zer erabakitzen den baino nola erabakitzen den garrantzitsuagoa da. Erabakitzeko prozesuak eta gero nola garatzen den erabakia: jarraipena, ondorengo ebaluaketa… Horrela, gizarteak erabaki egokiagoak hartzen trebatzen da; tamalez, hori oraindik ez da ohikoa gure kultura politikoan.

Goiko galderei erantzun kolektibo bat topatzeko, eta bide batez Balentziaga museoarekin gertatzen ari denaren zapore txarra kentzeko, polita izango litzateke, abiapuntutik bertatik gardena izango litzatekeen bide parte hartzaile bat jorratzea. Getariak merezi du.

# Andereño Maribelen eta ahizparen egoera berehala argitzeko eskatu du Eusko Jaurlaritzak

Ekainaren 10ean Iturzaeta Herri Eskolan 4 urteko gelan irakaslea den Maribel Bruño eta ahizpa atxilotu zituzten, Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epailearen aginduz, ETAri 6.000 euro "borondatez" ordaintzea leporatuta. Ekainaren 12tik espetxean daude.

Aitak ekainaren 18an prentsaurrekoa eman zuen; agerraldian bere itsaski eta kontserba enpresak 28 urtez ETAren estortsioa jasan duela eta orain alabak justiziaren biktima direla azaldu zuen. Andres Bruñok, alabek ezker abertzalearekin loturarik ez dutela argitu nahi izan zuen.

Bruño ahizpen aitak esandakoari sinesgarritasuna eman dio Eusko Jaurlaritzak, eta Miren Azkarate bozeramailearen bitartez, oinarri sendorik gabe espetxeratu dituztela eta egoera berehala argitzeko eskatu du.

Atxiloketaren ondoren hainbat elkartasun adierazpen jaso dituzte bi ahizpek eta familiak, horien artean Eskolarena. Horrela ekainaren 14an eskola festa egunean, Eskolako Guraso Elkartearen deiari erantzunez hainbat herritar bildu ziren plazan.

**Irakasle, ikasle, ikasle ohi, guraso, haur... lagun ugari bildu zen elkartasuna adierazteko.**

# Keta: saiatzearen fruituak jasotzen

Keta taldeak hasieratik zituen helburuak betetzen joan da: batetik,taldea eta kluba sortu, eta bestetik, igoera faserako sailkatu. Azkenean, igoera lortu ez arren, urtea bikaina izan da. Aitor Irigoien, taldeko kideak, jendearen erantzuna izan dela gehien nabarmentzekoa esan digu: "Kirol emaitzak baina hobeagoa izan baita zaletuen giroa eta animuak. Orioko harmailak gainezka egon dira, eta aurkariek behin baino gehiagotan zoriondu gaituzte gure zaletuengandik". Bestalde, Atlantikoa ere gurutzatu dute, eta Kubako kirol talde bati eta Lehen Hezkuntzako eskola bati kirol ekipamendua eta eskolako materiala eman dio Keta taldeak. Datorren urteari begira zera esan digu Aitorrek: "Aurtengoa bezain ona izatea espero dugu, eta zorte pixka batekin, ea aurten hain gertu izan dugun igoera lortzen dugun".

Aitor Irigoien

**Ketako kideak Kubako kirol talde batekin.**

# Xabier Eizagirreri patroi onenaren saria

Joan den ekainaren 17an, San Migel ligak BECen egindako ospakizunean, iazko denboraldiko elkarte eta kirolari onenak saritu zituen; horien artean, patroi onenaren saria Zumaiako Aita Mari Arraun Elkartean dabilen Xabier Eizagirre getariarrak patroi onenaren saria jaso zuen, Urdaibaiko Asier Zurinagarekin batera.
Zorionak, Xabier!!!

# IV. Ibilaldi Neurtu jendetsua



**Aurtengo irabazleak sariekin.**

Ibilaldiari ongi hartu zioten neurria Tomas eta Urtzi Otamendi aita-semeek, izan ere, beraiek izan dira aurtengo Ibilaldi Neurtuaren garaileak. Izena eman zuten 19 bikoteak herriko auzoetan barrena ibili ziren: Eitzaga, Mia, Askizu eta San Prudentzio zeharkatuz guztira 11,5 kilometro osatu behar izan zituzten. Zorionak bioi!

# Elkano taldea irabazle futbito txapelketan

Aurtengoa hamaikagarren aldia da Gure Txeruk Xabi Iñurrita Memoriala Futbito Txapelketa antolatzen duena, eta oraingo honetan, Elkano taldea izan da Ligako irabazlea eta bigarren, berriz, Mayflower izan da; hirugarren eta laugarren sailkatuak Harralde eta Izarri taldeak izan dira. Azkenik, Kopako finala Indauxek lortu du Irizabal taldeari irabazi ostean.

**Elkano taldeko kideak garaipena ospatzen.**

# Harrobi ederra pilotari gazteen mailan

Joan den ekainaren 8an Gure Txeruk antolatuta Eskuz Binakako XXX. Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren. Ondorengo hauek izan ziren irabazleak: Benjamin B mailan, Aratz Lertxundi eta Aimar Iraola; Benjamin A mailan, Gorka Zenekorta eta Gorka Aristi; Alebin B mailan, Kepa Aranguren eta John Willy Insausti; Alebin A mailan, Aitor Andreano eta Ibai Aranguren; azkenik, infantil mailan, Julen Goenaga eta Unai Eizmendi.
Zorionak, irabazleei eta txapelketan parte hartu duten pilotari guztiei!

**Maila bakoitzeko irabazleak garaikurrekin.**

## GAP Programa

Garapen Iraunkorraren 2002-2020 Euskal Ingurumen Estrategiak EAEko biztanleek gure planetaren oraina eta geroa bermatzeko hartu beharreko ingurumen-konpromisoak sustatzen ditu.

Nazio Batuen Erakundeak sustatzen duen GAP programak (Ekintza Plan Globala) oso ohikoak diren zeregin batzuetan gure eguneroko jokabideak hobetzen laguntzen du, honako arlo hauetan: uraren eta energiaren kontsumoa, garraiobideen erabilera, erosketak egiteko era eta etxean sortzen ditugun hondakinen kudeaketa.
Orain arte, aurreko bi edizioetan, 55 udalerrietako 17.000 familiak baino gehiagok parte hartu dute programan, eta hau lortu da: etxean 300 tona hondakin gutxiago sortzea, 50 milioi litro ur gutxiago kontsumitzea eta 4.000 tona CO2 gutxiago aireratzea.

Ingurumena hobetzeko aholku praktikoak biltzen dituzten lau eskuliburu jasoko dituzu, hilean bat (uraren erabilera, energia, garraioa, etxeko hondakinen kudeaketa etxean bertan eta erosketen arloko ohiturak). Eskuliburuekin batera lau galdera-sorta bidaliko dizkizue, zure aurrerapenak ebaluatzeko eta zer lortzen ari zaren jakin dezazun.

Dibertigarria eta erraza da programa burutzea! Berau burutzen duzunean, "Etxe Ekologikoaren" ziurtagiria jasoko duzue eta sari ederren zozketan parte hartuko duzue. Horretaz aparte emandako aholkuei esker, % 20 aurreztu dezakezue etxeko gastuetan.

Eskatu lehenbailehen eskuliburuak (doakoak dira). Ez galdu aukera hau, alekopurua mugatua da eta! Eman izena oraintxe eta lagun ezazu ingurumena hobetzen. Internetako www.udalsarea21.net web orriaren bidez egin dezakezue (era honetan egiterakoan papera eta energia aurrezten da).
Abantaila ugari zuentzat eta zuen ingurunearentzat:
- klima-aldaketa geldiarazten lagunduko duzu.
- ur eta energia gutxiago kontsumituko duzu.
- dirua aurreztuko duzu.
- ingurumena zainduko duzu.

Informazio gehiago:
Tel.: 943 896024
www.urolakosta.org
maizpuru@getaria.org

# René Bros, indigenen aliatua

**Jaiotzez frantsesa izan arren, badira 40 bat urte Venezuelan dagoela Yekuana eta Sanema indigenen komunitateekin elkar bizitzen Caurako arroan, Boliviar Estatuan. Caura, Orinoco ibaiaren iturburu nagusia da, eta Venezuelaren erditik hasi eta Brasilgo mugaraino iristen da. Hermanos de Foucauldarren ordenako beste kide batzuekin joan zen Venezuelara, eta gaur egun, bera bakarrik gelditzen da. Aitor Bikuña getariarrak lagundu digu elkarrizketa hau bideratzen, bera baita ELANek Venezuelan dituen proiektuak hemen koordinatzen dituena, eta Rene Bros eta Kuyujani Erakunde Indigena dira ELANek Caura-Medewadi ibaian dituen proiektoen kontrapartea.**




**Zer suposatzen du Caurako jendearentzat Euskal Herriaren solidaritateak?**

Pixkanaka gure munduan kokatzen ari dira, eta horretarako, hainbat erakundek euren laguntza eskaintzen diete, eta horien artean, eurek ELAN-Euskadirena sentitzen dute gertuena, izan ere duen tamainarengatik beste maila batean dagoen erakundea da, berezko nortasuna duena.

**Zehazki non egiten duzu lan?**

Indigenen zonan egiten dut lan, ibai guztian zehar. Ibaiaren bidea 400 kilometrotoa da, eta bide guzti horretan, 50/52 komunitate indigena bizi dira, oro har 2 talde etnikotan bilduta: Yekuana (Ye´kwana) eta Sanema taldeak. Bestalde, bada beste talde bat, Hoti taldea: nomadak diren hiru familiaz osatua dago, eta kanpokoekin erlazioa saihesten dute.

**Urte horietan guztietan, zein izan da zure betebeharra?**

Berrogei urte hauetan komunitateen formakuntza aurrera eramaten lagundu dut: hezkuntzan, osasunean… Baina nire egite nagusia, batez ere, indigena talde horiei laguntzen parte hartzea izan da, indigenen mundutik "criolloen" mundura bitarteko prozesu horretan egotea: lagundu, gure mundua zerbait gehiago uler dezaten.

**Nolatan iritsi zinen indigenekin lan egitera?**

Hasiera batean talde erlijioso batekin joan nintzen; denborarekin gauza bat eta bestea dela, utzi egin zuten, eta azkenean, bakarrik gelditu nintzen. Garai hartan, bertan betetzen nuen lana instituzionalagoa zen, baina une honetan ez dut inongo instituzio ordezkatzen; hartzen diren erabaki guztiak komunitate indigenek bakarrik hartu behar dituzte.

**50/52 komunitate horietan zenbat lagun dira?**

Guztira 4.000 lagun inguru

> **“Hainbat erakundek euren laguntza eskaintzen diete, eta horien artean, eurek ELAN-Euskadirena sentitzen dute gertuena”**

dira: batzuk talde familiar bat osatzen dute (talde txikiena 20 bat lagunekoa da), eta handiena 400 lagunekoa. Komunitate batzuek zibilizaziotik urruntzea erabakit dute, eta beste asko gerturatu edo ez erabakitzen ari dira.

**Beharbada gerturatzeak degradazioa ekarriko ote duen beldur direlako?**

Beraiek badakite gerturatzeak zer suposatzen duen; Brasildik, Venezuelatik… Barneratze prozesua martxan dago, eta ez dute babeslekurik.

**Datorrena beti bortitzagoa da?**

Gaur egun, Boliviar iraultzaren politika dela eta, indigenengana gerturatzeko saiakera egin da, baina intentzio on horiek ez dira euren ekintzetan islatzen; aniztasuneko egoera bat integratzeko garaian, oro har kontzentratzera, zentralizatzera zuzentzen dira, eta guztiek pairatzen dituzte horrek suposatzen dituen zailtasunak.

**Hezkuntzari dagokionez, zer egoeratan daude?**

Gobernuak jende guztiarentzat hezkuntza izango dela agintzen du, baina bekak ez dira iristen, eta beste diru-iturri batzuetara jo behar da.

**Zer hizkuntzatan ikasten dute?**

Venezuelan 30 hizkuntza inguru daude, hiru multzotan sailkatuta: Caribe, Arauaco eta Independenteak. Lehen Hezkuntzan biak erabiltzen dira, gaztelania eta bertako hizkuntza; Bigarren Hezkuntza, berriz, gaztelaniaz egiten da.

**Nola ikusten duzu indigenen mugimendua?**

70.eko hamarkadan indigenen mugimenduaren erabateko organizazio prozesu bat egin zen, bai nazional zein internazional mailan. Gaur egun, guztiek zailtasunak dituzte; nazional mugimenduen mailan. Amazonia arroan, COICA deritzona daukagu: hauek indarra hartzen joan diren neurrian, aukera politiko bilakatu dira, eta horren ondorioz, zatiketak eta hondaketa hasi dira. Orain berriro hori guztia gainditzeko kontzientzia bueltatzen ari da; Hego Ameriketako hainbat estatutan ezkerrerako joera bat nabarmentzen da, baina tamalez, amazoniako arroan kanpoko interes ugari daude, interes ekonomikoak: meatzaritza, egurra, bioteknologia…

**Zertan datza bioteknologia?**

Oihanaren aprobetxamendua medizinaren erabilerarako, baina baita medizinatik haratago ere; etorkizuneko hainbat negozio bioteknologian oinarria izango dutela jakinik, Amazoniak horiek guztiak garatzeko dituen aukerak ikertzen ari dira (adibidez: genetikaren alorrean… ).

**Esplotazioaren aldekoak al dira?**

Amazoniako gizakia arnegatua gelditu da, eta arroako indigenak zatituta daude, inguruan presio ugari baitago: sektore batzuk esplotazioaren aldekoak dira, besteak ez. Cauran, adibidez, gaur egun meatzaritzak indar handia du, baina beste jende ugari bioteknologiak ekarriko duenaren zain daude: adibidez, uraren inguruan ikerketak egin ziren, izan ere, arroako urak erabat garbiak dira, inongo kutsadurarik gabeak. EEBBetako eta Venezuelako hainbat unibertsitatek uraren ikerketak egin zituzten, baina Chavezen Gobernuak ez du aurrera eramaten uzten.

***Lurraren eskubidea*: gaur egun zer egoeratan daude bertako indigenak lurrari dagokionez?**

Indigenen herrialdeetan lurrak erabateko lehentasuna dauka, zehatzago esanda, lurraren eskubideak; hain zuzen ere, Konstituzioan ezartzen da euren lurraldearekiko eskubidea eta hezkuntza eskubidea dituztela, baina ez bat eta ez bestea ez dira bete, eta gainera, ez daukate betetzeko interesik.

**Duela urte batzuk lurraldearen mugaketa egin zen; zertan gauzatu zen?**

Bai, halaxe egin zen, eta gainera indigena beraiek parte aktiboa izan zuten proiektu horretan (hainbat indigenek formakuntza jaso zuten lurralde -mugaketa egiteko); behin hori eginda, forma

**Argazkiak: Aitor Bikuña**

legala eman nahi zitzaion, baina lurralde-mugaketak Venezuelan arazo batekin egin du topo: lurraldearen jabetza; egungo presidenteak dioen bezala, beste latifundio bat litzateke, eta herriak juxtu horren aurka borrokatzen du, jabetzaren eskubidearen aurka. Berez, jaso beharko litzatekeen eskubidea Habitat Eskubidea litzateke; hori errekonozitzeko, ordea, ez da legerik garatu, eta ondorioz, ez dakite zer forma eman, ez baita gai hori landu. Ez dakitenez, inhibitu egiten da; are gehiago, Boliviar Gobernuak desestimatu egin du. Gaur egun indigenen lurraldea Erreserba Naturala bezala sailkatuta dago.

**Herri indigenentzat kolpe gogorra izan da, ezta?**

Noski, izan ere lan ikaragarria egin zen, eta irtenbide bat bilatuko zela pentsatu zuten, baina hori guztia gauzatuko zuen formula legala bilatzeko borondate politikorik ez zen egon.

**Formula legal hori gabe, zer arriskurekin topa daitezke?**

Konstituzioak dioena ez da bete, eta ondorioz, zehaztu gabe gelditu da. Brasil, adibidez, lurrak emateari dagokionez aurreratu egin zen, eta Lula presidenteak emandako azkena, Venezuelaren iparraldean, bertako hainbat senatarirekin talka eginez, ez baitzuten nahi euren lurrei uko egin; egun, Brasilgo eskuin indarra Chavezen Gobernuarekin bat dator, zeinak ez dute indigenei lurrik eman nahi.

**Zehazki, zein da indigenekin egiten duzun lana?**

ELANek hainbat proiektu integral ditu Cauran: batetik, hezkuntza proiektua, bertako neska-mutikoentzat bekak lortze ditu; bestetik, garraioa eta komunikazioa hobetzeko ekintzak; azkenik, badago lehen pausoak ematen ari den proiektua: kakaoaren garapen eta hedapen proiektua. Kakaoaren komertzioarekin lortutako etekinekin bizi ahal izateko. Horrek guztiak han kontrapartida dauka: Kuyujani organizazio indigena dago; nire lana, talde horri laguntza ematea da. Garai batean hezkuntza mailan, osasun arloan… zuzenean jardun nuen, baina egun, nire lehentasuna laguntzea da.

**Zein dira Kuyujani taldearen helburu nagusiak?**

Batez ere indigenen lurrarekiko eskubideak onartzea, garapen hondaketak aurreikusi eta bizilekuari dagokion





administrazioaren eraginkortasuna sustatu… Irudi interkomunitarioa dauka.

**Zeintzuk dira elikagai iturri nagusiak?**

Oihanak ematen die guztia: ehiza, arrantza, uzta biltzea… Beraiek egindako artisau lanak salerosten dituzte; norberaren identitatea egiten duen artisau lanean islatzen da.

**Nomadak izateari utzi diote?**

Lehen nomadak ziren komunitate gehienak orain ezarkuntza prozesu batean daude, Hoti taldea izan ezik. Talderen bat gehiegi hasten bada, zatitu egiten dira, izan ere talde handiak inpaktu handiegia dute oihanean.

**Nola antolatzen dira herrian?**

Familia bakoitzak bere etxea dauka, eta horrez gain, etxe zentral bat dago, Churuaca deritzona: bertan, goizeko janaria, bilerak, festak… egiten dira. Oro har, goizeko otordua izaten da garrantzitsuena, orduan erabakitzen eta banatzen baitira egunean zehar egingo diren lanak. Komunitate sentipena erabatekoa da: ez dute ezergatik "eskerrak" ematen, ez baita beharrezkoa: gaur niri laguntzen didate, eta hurrengoan nik haiei.

**Nolakoak izaten dira etxeak?**

Oro har lastozko teilatua eta buztinezko paretak izaten dituzte. Gauetan gizon zaharrak elkartzen dira, eta hitz egiten jarduten dute berandu

> **"Komunitate sentipena erabatekoa da: ez dute ezergatik "eskerrak" ematen, ez baita beharrezkoa"**

arte, batzuetan goizaldera arte.

**Zer sinesmen mota daukate?**
Sinesmena ama lurrarengandik, eguzkitik, eta ahoz transmititu den tradizioetatik dator. Adinekoengandik ahozko transmisioa jasotzen dute: lehen gazteek buruz ikasten zituzten, eta egun, jasotako guztia idatzi egiten dute. Zaharrei izugarrizko errespetua diete, eta gainera, irtenbide liskartsua duten arazoetan arbitraje lana egiten dute.

**Zein dira emakumearen eginbeharrak?**
Gizonezkoak etxe komunitarioan agintzen dute, baina norberaren etxean, emakumezkoek agintzen dute. Gizonezkoak oihana ebakitzen dute, eta emakumezkoek, haziak erein, uzta jaso, etxea, haurrak… Bi munduen arteko talka honetan, gizonezkoa da kamporatzen dena eta kolpatuena ateratzen dena ere; hori dela eta, geroz eta gehiago hartzen da gogoan emakumearen iritzia. Aurrerantzean ere emakume antolatua izango da ardatza herrialde indigenetan.

**Zer erlazio mota dituzte?**
Monogamia da nagusi, baina poligamia ere ematen da; aitaren anaiak aitak dira aldi berean, eta amaren ahizpak, amak dira. Beraz, emakumezko bat alargun gelditzen bada, haurra ez da umezurtz gelditzen aitaren aldetik, aitaren anaiak betetzen baitu hutsune hori, eta emakumezkoa, bere koinatuaren emaztea izatera pasatzen da. Umezurtz gelditutako seme-alabaren bat ezkontzean, amak berriro bere autonomia berreskuratzen du. Kanpoko eraginagatik hori ere aldatzen ari da. Indigenek ezin dute ulertu bakarrik bizi daitekeenik: norbait bakarrik geratuz gero, jaso egiten dute; pentsa, ni bakarrik bizi naiz eta jendeak ez du ulertzen.

**Kanpoko gizartea eta euren gizarte tradizionalaren arteko talkaren ondorioz tentsio uneak sortuko dira, ezta?**
Noski. Tradizioari eutsi nahi diotenak, herrian gelditzen dira, eta besteak, hirira jaisten dira; azken horiek herriarekin erlazioren bat mantendu nahi izaten dute, eta ahalegin guztiak egiten dituzte haustura erabatekoa izan ez dadin.

**Zer aldatu da 40 urte hauetan?**
Aldaketak ugariak izan dira, zaila da zehaztea. Komunitatea handitzen doa: osasun arloak izan duen garapenarekin, biztanlearen hazkuntzak gorantz egin du. Gaur egun indigenek gehien pairatzen dutena kanpoko gizartearekiko talka da. Bestalde, arrisku handiena politikan izan dezaketen partizipazioan dago, iruzurra zer puntutan sartuko dien. Telebista, ordenagailuak… arriskuak ugariak dira; ingurumenaren gaineko eragina izugarria da, nahiz eta jendea horretarako prestatu, eragina ikaragarria da.

**Hemendik aurrera zer?**
Baliagarria naizen bitartean, han jarraituko dut; oraindik etorri nintzeneko talde erlijioso berean darrait, baina bakarrik. Ni denboraldi baterako joan nintzen, eta orain, gorputzak nahiko esan arte egongo naiz; bertan eman baino gehiago jaso egiten da. Hemendik aurrera kanpoko munduarekiko talkaren ondorioz arazoak dauden lekuan kokatuko naiz, eta ez naiz horrenbeste komunitateen artean biziko.

**Zer eskaintzen die zure erlijioak?**
Batez ere jakiturien arteko elkarrizketa, haiena eta geurea: hor elkartze puntu bat izan daiteke; gaur egun, kristautasunaren irakurketak eta eurek duten tradiziozko sinismenen arteko gertutasuna nabariagoa da, batez ere azken hori egungo sozialismoarekin konparatuz gero.

**Zer festa mota ospatzen dituzte?**
Tradiziozkoak izan ohi dira: uztarako oihana prestatzean, uzta jasotzean… Hirira jaitsi diren gazteak itzuli beharra sentitzen dute tradiziozko festekin gozatzera, identitatea sendotzen baitie.

## “Ni denboraldi baterako joan nintzen, eta orain, gorputzak nahiko esan arte egongo naiz”



Amaia Iribar eta Maider Ostolaza

# *Euskal Asteaz, Euskal Jaiaz gozatzen!*

Maiatzaren 26tik 31 bitartean, Euskal Astea ospatu zen; hainbat ekintza egin ziren astean guztian: hitzaldiak, filmak, antzerkia, dantzak… eta azken egunean, festa behar den bezala bukatzeko, Euskal Jai Eguna izan zen. Egun guztian ez zen aspertzeko unerik izan: txistulariak, azoka, dultzaineroak, idi-busa, ardi txakurren erakustaldia (antzar eta ahateekin lanean), sardin-jana, sagardo dastatzea, Irrintzi Lehiaketa Herrikoia (Erika Larrañagak irabazi zuena), Trikitilari Gazteen Getariako IX. Txapelketa (Eneritz Bengoetxeak eta Edurne Errandoneak lortu zuten txapela), bertso-triki-poteoa… Ez zen aspertzeko unerik izan, ez horixe!

Liburu

# Emeterio Urresti

## *Getariako Kofradiako lehendakaria*



**Getariako itsasontziek, antxoaren harrapeketari dagokion geldiunea egin ostean, hilabete honen erdialdean ekin zioten hegaluzearen eta hega motzaren kanpainari; hala ere, arrantzaleak ez ziren aukeratutako egunean itsasoratu, gasolioaren garestitzea dela eta, lehorrean geratu baitziren protesta gisa, eta ondorioz, hiru egun geroago hasi ziren.**

**Berdela, antxoa, hegaluzea, gasolioa... Emeterio Urrestirengana jo dugu horiei guztiei buruz hainbat galderen erantzuna jaso nahian.**

### Berdela

**Azken urteetan berdelaren arrantzak gora egin du; aurten ere hala izan da, ezta?**
Bai, kiloei dagokionez, urtetik urtera gehiago ari gara harrapatzen; orain, antxoarekin dugun arazoa dela eta, berdela arrantzari garrantzi gehiago ematen diogu: otsailaren erdian hasi ginen eta gutxi gorabehera apirilaren hasiera arte jardun genuen.

**Berdelaren arrantzak kotarik ba al du?**
Bai, noski. Espainian 3 flota modalitate daude: "arrastreroak", sare zaleak (gu talde honetan gaude) eta azkenik, amuarekin harrapatzen dutenak. Espainiak kota bat badu (berdelari dagokionez, Europak Espainiari %10eko kota ezartzen dio), baina daukan barku kopurua kontuan izanda, kota hori oso urria gelditzen da; batetik, arrasteko itsasontziak gero eta gehiago arrantzatzen dute berdela (batez ere gu geldirik gaudenean, abenduan eta urtarrilean), eta bestalde, guk urtetik urtera gehiago arrantzatzen dugu, eta amuarekin jarduten dutenek ere, dezente harrapatzen dute.

**Zenbatean dago kota hori?**
Espainiari 17.000 tona dagozkio, eta dituen 3 barku modalitate horientzat, kilo horietara

berehala iristen gara; Espainiak "vista gorda" egiten du, badakielako kota txikia daukala, eta Europak altu egiten ez digun bitartean, harrapatzen jarraituko dugu.

**Eta zenbat harrapatu da?**
Gipuzkoan bertan 17.000 tona harrapatu dira, eta guztira, Espainian 60.000 tonatara iritsi da berdelaren arrantza.

**Kiloek gora, eta prezioak?**
Berdela denbora motxean etortzen da, eta merkatua berehala betetzen da, ondorioz, prezioa gelditu egiten da. Guk harrapatzen dugun berdelak bi merkatu mota ditu: bata, izozketa plantara zuzentzen dena (oro har harrapatutakoaren %70 a); beste zatia, merkatu freskora bideratzen da. Nahiz eta izotzezko merkatuak prezio baxuagoa eskaini, merkatu segurua izaten da; freskorako merkatua, mugatuagoa da. Hala ere, azken aldian freskorako merkatuak gorakada izan du, gaur egun makinen hornikuntzari dagokionez, itsasontziak oso ondo prestatuta daude, eta ondorioz, arraina oso ondo iristen da merkatura.

**Asteko edo eguneko harrapaketak direla eta, istiluak izan zenituzten, ezta?**
Bai, Gipuzkoakoak baztertuta sentitu ginen. Aurten eguraldiagatik egun asko galdu ditugu; amuarekin jarduten dutenek beste era batera egiten dute lana, eta eguraldi txarrarekin lana egiteko aukera izaten dute. Haiek eguneko harrapaketa nahi dute kontuan izan, 20000 kilo inguru; guk, aldiz, asteko harrapaketa nahi dugu izatea, 120.000 kilo gutxi gorabehera, eta ondorioz, eguraldi txarragatik galdutako egunak astean gelditzen diren beste egunekin errekuperatu.

**Gipuzkoako amu zaleak ere kontra zeneuzkaten?**
Bai, izan ere horiek Kantabrian jarduten dute deskargatzen. Horrez gain, kontuan izan behar da Bizkaian ere 10 itsasontzi direla sareekin jarduten dutenak, eta amuarekin, berriz, 60/70 inguru.

## Antxoa

**Antxoaren kanpainan geldiune biologikoa egin da; dirulaguntzak jaso ahal izateko 40 eguneko geldialdia egin duzue. Noiz hasi zineten?**
Apirilaren 25etik aurrera hasten zen zenbatzen; 40 eguneko geldialdia izan ohi da, eta horiek nahi izanez gero errenkan egin daitezke, edo bi zatitan, baina gauza bat kontuan hartuta: geldialdi bakoitzak 10 egunekoa izan behar duela gutxienez.

**40 egun horietan beste arrainik arrantzatu al daiteke?**
Nahi izanez gero, bai, baina dirulaguntza ez litzateke jasoko; geldialdia antxoaren arrantzari dagokio; adibidez, beste arrainen bat arrantzatu nahi bada, egin daiteke, baina antxoaren paradako laguntza ez litzateke jasoko. Norberak baloratu beharko du zerk konpentsatzen dion gehien.

**Azti-Zio eta Ifremerreko biologoek ikerketak egiten jardun dute; zer bilatu dute?**
Badirudi iazko datuen antzekoak topatu dituztela; antxoa handia bilatu dute, baina kantitate gutxi, eta gainera, topatutako arrautzaren kopurua ere urria izan da. Maiatzaren amaieran bukatu zuten ikerketekin, eta ekainaren amaieran arrantza Ministroek egingo duten batzarrean erabakiko da bigarren seihileko antxoa arrantzatzeko debekua kentzen duten ala ez.

**Antxoaren etorkizuna ilun xamarra dago, ezta?**
Nik beti esperantza izaten dut; lehen ere baziren urte txarrak, baina tamalez, horren zergatia bilatzeko ez ziren ikerketarik egiten. Bestalde, zergatia jakin ez arren, harrapaketa kopuruaren datuak badaude, eta horiek tarteka urte oso txarrak bazirela erakusten digute.

**Egungo egoera aurreko urteetako gehiegikeriaren ondorioa ote?**
Frantsesek urte basatiak izan dituzte; horien arrantza ez da selektiboa izaten, gurea bezala, eta erabiltzen duten arrantza tresna ez da kontrolatu. Lehen frantses itsas plataforma ikaragarri aberatsa zen, eta gaur egun, ez dago ezer. Gu iraunkortasun baten aldekoak gara; nire ustez, guk harrapatzen dugun eran ez da arraina desagertuko.

## Hegalaburra eta hegaluzea

**Gasolioarekin dagoen arazoa dela eta, gelditzea erabaki zenuten eta ondorioz kanpainaren hasiera zerbait atzeratu zen, ezta?**
Gainontzeko flota geldirik egonik, gu bakarrik itsasora irtetea ez zitzaigun egokia iruditzen, guri ere eragiten baitigu gasolioaren igoerak.

**Erregaia itsasontzi baten gastu garrantzitsuena izanik, nola eragiten dizue gasolioaren igoerak?**
Azken urteetan gasolioa asko garestitu da: gutxi gorabehera, egun duela bost urte baino 3 aldiz gehiago ordaintzen da litroa, eta tamalez, arrainaren prezioa ez da proportzio horretan igo

**Beraz, zein litzateke irtenbidea?**
Nire ustez gasolioaren prezioa ez da jaitsiko, eta ondorioz, arraina garestiago saldu beharko litzateke. Horrez gain, agintariek etxeko arrantzaleak gehiago babestu beharko lituzkete; nahiz eta globalizazioaren garaian bizi,

kanpotik datorren arrainari arantzelak jartzea komeniko litzateke.

**Hegalaburraren kanpaina arazoekin hasi duzue: frantses ekologisten boikota dela eta, joan den ekainaren 20an hegalaburrak jaitsiera bortitza izan zuen, eta ondorioz, ontziak ez ziren itsasoratu. Zer iritzi duzu hori guztiari buruz?**

Bai, halaxe da. Begira, ICAT delako erakundea hegalaburraren kudeaketaz arduratzen da, hau da, nazio bakoitzari zenbateko kuota duen esateaz arduratzen da. Bestalde, 30 kilotik beherako hegalaburraren arrantzaketa debekatzen du, kilo horietatik gora bai. Baina gurekin salbuespena egiten du, guk hegalaburraren arrantza selektiboa egiten baitugu: hau da, banaka banaka, eta eta arrainak jan nahi badu eta pikatzen badu harrapatzen dugu; guk harrapatzen dugun eran, hegalaburrak ez du desagertzeko arriskurik. Mediterraneoan, aldiz, sare handiekin jarduten dute, eta jan nahi duten ala ez, denak harrapatzen dituzte. Kontua da Frantziak, Italiak, Greziak, Txiprek eta Maltak zuten kuota gainditu dutela. Guk orain merkatu horretan hegalaburra eskaintzeko aukera dugu, baina hori arrantzale frantsesek ez dute gustukoa.

Bestalde, frantses ekologistek gure aurkako kanpaina gogor bati ekin diote, non 30 kilotik behera harrapatzen dugun salatzen duten, kontuan hartu gabe guk harrapaketa selektiboa egiten dugula, ez sarearekin. Espezie horren erosketa eta ondorengo salmentari ekologistek egiten ari diren boikota dela eta, salerosketan dabilen jendea beldur da horrek guztiak duen eraginagatik.

Beraz, kontuan Frantzia dela gure merkatu nagusia, hau da, harrapaketen %80-90a Frantziara doala, bertan topatzen dugun boikotarekin, arraina salida gabe gelditzen da, bera da *karrutik* tiratzen duena. Hori ezean, Espainiako merkatura jo behar da, baina merkatu honetan prezioak jaitsiz gero saltzen da.

**"Lehen ere baziren urte txarrak, baina tamalez, horren zergatia bilatzeko ez ziren ikerketarik egiten"**

Hemendik aurrera, berrogeita hamar inguru itsasontziek dugun 1.100.000ko kuota horretatik zati bat harrapatu dugu; falta dena, merkatura ahal den prezio egokienean bideratzen saiatuko gara, autoregulazio bat izango da. Horrez gain, gure aldetik *asignatura penditente* bat dugu: jendeari informatzea, hau da, guk egiten dugun arrantza motarekin hegalaburrak desagertzeko arriskurik ez duela informatzea.

**Noiz hasten zarete hegaluzearekin?**

Oro har, San Fermin aldera hasten gara hegaluzearekin; hasieran, zimarroia arrantzatzen da, eta gero, hegaluzea.

**Hegaluzearen kanpainarekin ba al duzu esperantzarik?**

Esperantza beti izan behar da.

Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
barne diseinua interiorismo
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@euskalnet.net

Hortz Klinika Argidental S.L.
Dr. J.L. Soulier
- Odontologia
- Periodontzia
- Endodontzia
- Inplantologia
- Prebentzioa
- Erreabilitazioa
- Hortz estetika
- Protesiak
Maria Etxetxiki kalea, 1 behea 20800 ZARAUTZ
clinicadentalsoulier@ifonegocio.com T.: 943 130 278

# Kirolik onena bizitza bera da, eta gainera, batzuk horretan dihardute!

Jakina da ariketa fisikoak osasunarentzat onurak besterik ez dituela eskaintzen. Bizimodu sedentarioa egiten duen jendeak, gizentasuna, diabetesa eta hipertentsioa moduko patologiak garatzeko aukera gehiago dauka; gaixotasunen bat duen jendeari ariketa fisikoa lagungarria zaio, eta gainera, gaixotasunak txarrera jotzea saihesten du.

Dena den, ariketa fisikoa egiteko hainbat intentsitate maila daude, eta hori ezagutzeak garrantzi handia du, izan ere, ariketa maila bakoitzari onura desberdin bat dagokio.

Ariketa fisikoaren intentsitate mailak honakoak izan daitezke: arina, moderatua eta indartsua; baina beti garbi izan behar duguna zera da: aktiboa izanez gero, gure osasunak eskertuko duela.

Bestalde, ariketa hasterako orduan, beti poliki-poliki hasi behar da, eta denborarekin, pixkanaka, gorputza ariketari egokitzen doan neurrian, aktibitate fisikoaren maila handituz joan daiteke.

| Ondorengo taulak esfortzuak dituen onurak islatzen ditu: | |
|---|---|
| **Esfortzu maila** | Osasunarentzat **onura** |
| **Arina (%60tik %70era)** | **Koipea murrizten du** |
| **Moderatua (%70etik %80ra)** | **Bihotzarentzat eta birikentzat onura**<br>**Koipea murrizten du** |
| **Indartsua (%80tik %90era)** | **Oraindik onura gehiago bihotzarentzat zein birikentzat.**<br>**Koipea murrizten du.** |

# Eskolako festa

Ekainaren 14an, larunbata, eskolako festa ospatu genuen bi taldetan banatuta: Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzakoak.

Goizean, 09:30ean, kiroldegian elkartu ginen eta zazpi tailer zeuden prestatuta: harriak margotu, tximeletekin mobilak, malabaretako pilotak, papirofleksia, murala, koilareak-pultzerak-llaberoak egitekoa eta aurpegia margotzeko tailerra; bakoitzak nahi zuena aukera zezakeen.

Tailerrak hainbat tokitan zeuden eta horietan ibili ginen. Irakasleak eta Guraso Elkartekoak laguntzeko egon ziren.

Tailerrak egiten egon ginen hamaikak arte eta sirena jo zuenean aretora joan ginen, eta txistulariekin hasiera eman genion emanaldiari.

Txistularien ondoren euskal dantzak, bertsoak eta musika eta dantza saioa eskaini genien guraso eta etorri ziren guztiei.

Emanaldiaren ondoren bazkaltzera joan ginen polikiroldegira; 270 lagun inguru elkartu ginen.

Bazkaldu eta gero jolasak, play-backa, merienda eta bukatzeko bota-ura egin genuen. Ura hotza zegoen, baina gustura ibili ginen.

Arropa aldatu ondoren danborrak hartu eta Txerura abiatu ginen danborra joaz.

Play-backa asko gustatu zitzaizkigun eta tailerrak ere oso ondo egon ziren. Eguna oso ondo pasa genuen, eguraldiak ere lagundu zigun.

**3. maila**

LAISTER
PVC leihoak
HERZMET 10
Tel./Faxa: 943 13 22 03
Tel.: 943 83 49 25

aranola
PVC eta Aluminiozko lanak
Tel.: 649 95 15 03 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86
aranola

Amaia Lazkano
Miren Lazkano
San Prudentzioa auzoa
telefonoa: 943 14 00 67
Mugikorra: 669 258 061
faxa: 943 14 05 44
20808 GETARIA
Xabin Etxea
LANDA ETXEA - JATETXEA

Taberna
Mayflower
Erretegia
katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
faxa: 943 140 604
Mobila: 652 775 061
E-posta: eugeniouranga@hotmail.com

ASKIZU
Udal aterpetxea.
Ingurugiro eskola.
Erreserbak: 943 833 641
Etxe osoa: 200 €/eguna
Asteburua: 320 €
Askizu auzoa z/g 20808 Getaria - Gipuzkoa

elan euskadi
ONGD - GGKE

# Zero pobrezia eta aniztasun biologikoa

Bioaniztasun aberatsa eta eskuragarria da pobrezia errotik desagerrarazteko edozein saiakeraren funtsezko atala.

Aniztasun biologikoa edo bioaniztasuna honela definitzen da: "munduan dauden bizidun izaki guztiak, beraien material genetikoa eta osotzen dituzten ekosistemak barne". Pobrezia erradikatzeko garrantzi berezia du, bioaniztasuna elikaduraren ezinbesteko oinarria baita eta beste zenbait jarduerarentzat garrantzi izugarria izaten jarraitzen baitu, hala nola garraioan (zama eramateko animaliak, …), eraikuntzan (zuhaitzak, lastoa, ihiak, …) eta medikuntzan, elementu hauen gabeziak pobrezia erakutsi dezakeelarik.

Honela, ezagutzen diren 250.000 landare ingurutik, pertsonak elikatzeko erabili ahalko liratekeen 10.000 landare baskular daudela estimatzen da. Medikuntza naturalean landareen milaka espezie erabiltzen dira, zenbait elikagai ere badira eta beste zenbait ez dira elikagai gisa erabiltzen pozoitsuak edo ehogaitzak izateagatik adibidez. Bestalde, egurdun zenbait espeziek, zuhaitzek bereziki, eraikuntzarako erabiltzen den egurra ematen dute, energia sortzeko egurra, etab.

Bioaniztasunik gabe, gizadi osoa muturreko pobrezian barneratuko litzateke. Bioaniztasun urriarekin ere, arazoak larritu egingo lirateke. Elikadura aberatsa izatea, elementu jangarri desberdin ugari eskuragarri izatearen arabera dago; hau da, arroza hazi eta arroza soilik janez, eta arroz mota bakarra, nutrizio arloan pobrezia adierazten du eta nekazal arloan berriz ezegonkortasuna adierazten du. Gaur egun, landareetatik jasotzen ditugun proteinen %60a, hiru hazkuntza motatik soilik jasotzen dugu (arroza, garia eta artoa) eta etengabeki hazkuntza horietariko bakoitzean erabiltzen diren barietate kopurua murriztuz doa: arrozaz hitz egiten adibidez, egun 10 barietatek soilik arroz hazkuntzen %75a osotzen dute, lehen milaka dozena barietate erabiltzen zirelarik.

Honekin batera, landatutako aniztasunaz –agrobioaniztasunaz- haratago, basa bioaniztasunaren garrantzia kontuan eduki behar da, bereziki elikaduran eta goseteen erauztean duen garrantzia kontuan edukita. Ekialdeko Bengalan (Asia) 124 basa espezie daude arrozaleekin erlazionatuta eta garrantzi ekonomikoa dute nekazarientzat, batipat beraien elikaduran. Tanzanian berriz (Afrikan) sukaldaritza errezeten %80an erabiltzen dituzte landatu gabeko landareak.

Dena den, bioaniztasun aberats bat bermatzeaz gain, pobreziaren aurkako borrokan laguntzeko bioaniztasunaren gakoa, bertara sarbidea edukitzea da. Hiru prozesu daude, bioaniztasunera sarbidea larriki murrizten ari direnak eta pobreziarekin amaitzeko beharrezkoak direnak:

ß Bioaniztasunaren suntsiketa masiboa, adibidez, bioaniztasun handia duten gune zehatzetako landa, baso eta nekazal monokultiboekin ordezkatuz (soia Argentinan, eukaliptoa Amazonian...); helburua, herrialde aberatsak elikagaiez eta papera bezalako ondasunez hornitzea.

ß Bioaniztasunaren pribatizazioa, izaki bizien patente sistemaren bidez. Honek, erabileraren monopolioa dakar germoplasmaren "jabe" denaren aldetik eta areagotu egiten du, ekiditu beharren, pobreziaren arazoa, elikadurarako hazien prezioa igo araziaz adibidez.

ß Milaka urte dituzten ekintzen ilegalizazioak, hala nola, landarako erabiltzen diren landareen hazien gordetze, trukatze edo salmenta, beharrezkoak direnak nekazal aniztasunerako eta biztanlegoaren dependentzia eman ez dadin enpresa transnazionalen interes ekonomikoekiko.

Honela, pobreziaren aurkako borrokan, ezinbestekoa da bioaniztasunaren garrantzia onartzea, bioaniztasunera sarbide librea bermatzea, tokiko beharren eta ohituren arabera. Beraz, horretarako ezinbestekoa suertatzen da izaki bizidunen gain ezarritako patenteak ezabatzea eta bioaniztasun sostengarri bat sustatzea, dauden ezagutzak berreskuratu eta mantenduaz.

**Helen Groome (EHNE)**
**Pobrezia Zero Plataforma**



2

# Erroma eta itsasoa

Erromatar inperioaren eraketa itsasoari esker eta itsasoaren inguruan burutu zen. Antzinaroan Mediterraniar itsasoa "munduaren" erdigunea zen garaietan, itsaso horretako merkataritza bideen eta portuen gaineko kontrola ezinbestekoa zen garai hartako estatuen biziraupena eta indarra bermatzeko. Denok entzun ditugu kretatarren mizenastarren, feniziarren, greziarren edo kartagotarren berriak. Herri horiek eraiki zituzten egitura politikoen arrakasta Mediterraniar itsasoko merkataritza bideen kontrolari esker lortu zen.

Erroma ere, hasiera batean, itsaso horren inguruko estatu txiki bat besterik ez zen. Pixkanaka Mediterraneo inguruko gainontzeko estatuak bereganatu zituen, itsaso hori "erromatar laku" izatera iritsiz. Oso esanguratsua da erromatarrek Mediterranear itsasoari ipinitako izena, "Mare Nostrum", hau da Gure Itsasoa. Inperioaren bilakaeran berebiziko garrantzia izan zuen itsasoren gaineko kontrolak. Mediterranear itsasbazterretik aurrera eraiki zuten beren lur inperioa, ia Europa osoa, Asia hurbila eta Afrikako iparralde osoa konkistatuz. Mediterraniar itsasotik kanpo, Gibraltarko itsasartetik hasi eta Iparreko itsasoa bitarteko Atlantiar ozeanoaren eremu osoa ere beren kontrolpean ezarri zuten, ondorioz Alemaniako kostaldea, Ingalaterra, eta Flandriatik Galizia arterainoko lur guztiak ere eskuratu zituzten.

Horren lekuko, Kantauriar itsasoaren kontrola nahitaezkoa izan zen Galia eta Akitania (egungo Frantzian) edo Kantabria (Espainiako iparraldea) konkistatzeko. Galia eta Akitaniari dagokionez Julio Zesar-ek lurralde horiek konkistatzerakoan Venetoen –Loira ibaiaren itsasoratze inguruko lurraldean bizi zen herria- ontziteria boteretsua garaitu behar izan zuen. Kantrabria konkistatzeko ere Oktabio Augusto Zesar-ek Burdigalatik –gaur egungo Bordeletik- gudaontziteri bat bidali zuen Santander inguruko kostaldera, barrualdeko tropekin batera kantabriarrak bi aldetatik harrapatu eta garaitzeko.

Kantabriako konkista hori burutu eta urte gutxitara, Kristo ondorengo lehen urteetan, Strabon geografo erromatarrak Kantauri itsasbazterreko herriez hitz egiterakoan zera zioen, ehun bat urte lehenago arte larruzko ontziak besterik ez zituztela eta harrezkero hasi zirela enbor bat hustuz egindakoak eraikitzen; dena den, azken ontzi mota horien erabilera oso bakana izaten jarraitzen zuela dio Strabonek. Erromatarrak gure lur hauek bereganatu zituztenetik itsas jarduerek eta itsasketa edo nabigazioak berak garapen handia izango zuen aurrerantzean. Egia da, aurreko alean aipatu genuen bezala, Erromatarrak iritsi baino mende asko lehenago gure kostaldean gizakia bizi zela eta noski bertako baliabideak ustiatuko zituztela, baina Strabonek dioenaren arabera ontzigintzak eta itsasketak ez zuen garapen handiegirik izan.

Arkeologia lanetan ere egoera hori nabarmen ikusten da: erromatarrak iritsi aurretik itsasoz iritsitako materialik ez baita gure aztarnategietan aurkitu. Erromatarrak iritsi orduko egoera hori erabat aldatu zen. Lehenik eta behin, itsasoaren kontrola eta konkistatu berri zituzten Akitania eta Kantabriako lurren gaineko kontrola bermatzeko egungo Bidasoaren itsasoratze inguruan Oiasso hiria sortu zuten, garai hartako Baskoien lurretan. Kantauri itsasbazterrean sortutako hiri hauen arteko merkataritza harremanek berehala euskal kostalde osoaren garapena eragin zuten, Getarian, Zarautzen, Donostian, Mutrikun, Lekeition, Foruan, eta abarrean itsasotik bizi ziren populaketa guneak bultzaraziz.




**Zarautz Jauregiko erakusketako Erromatar garaiko materialen panela**

Getariako Zarautz-Jauregian egindako indusketa lanetan bertako biztanleentzako itsasoak zuen garrantzi handia agerian geratu da. Bertan dokumentatu diren etxeetan jasotako milaka zeramika zatien gehiengo zabala Baiona eta Bordele ingurutik iritsitakoa da. Zeramika hori itsasoz ekarria izan zenaren hipotesiari indarra ematen dion datu bat aipatu behar da gainera: zeramika multzo handi horretako mota jakin batzuek orain arte Gaskoina eta Lapurdi aldean bakarrik aurkituk izan direla eta horietatik kanpo Getarian bakarrik aurki ditzakegula, hau da, Gipuzkoako itsas bazterreko portu natural garrantzitsuenetariko batean.

# Galleta tarta

*Osagaiak:*

Galleta Maria pakete 1

100 g azukre

100 g gurin

"Ponche Caballero" basoka 1

Natillak (sobrekoak)

*Egiteko era*

Azukrea eta gurina nahastu eta nahasketa horrekin galletak elkarrekin itsatsi. Galleta Ponchetan busti eta elkarrekin itsatsi bat egin arte. Natillak egin eta gainetik bota, hozkailuan hozten utzi eta on egin!

## ZORIRIK EZ




***Idazlea**: : Irme Kertész (Budapest, 1929)*
***Itzultzailea:** Urtzi Urrutikoetxea*
***Argitaletxea**: Elkar*
***Argitalpen urtea**: 2003*
***Orri kopurua:** 264*

XX. mendean berebiziko garrantzia izan zuen gai bat jorratzen duen eleberri batekin natorkizue oraingoan ere: nazismoa. Jatorrizko herrian, Alemanian, orain dela hogeita hamar bat urte ikusi zuen argia honako lan honek eta idazle honen, Imre Kertészen lehen lana izan zen; baina, gure herrian, Urtzi Urritikoetxearen itzulpen lan bikainari esker, orain bost urte ezagutu genuen.

Hamabost urteko nerabe batek kontatzen digu istorio hau eta 1944. urtean hasten da, naziek Hungaria okupatu zuten unean. Istorio gordina da, baina protagonista gaztea izateak, eta honen xalotasunak, gertakariak samurtu egiten ditu.

Autoreak, familiak judukoak, Auschwitz eta Buchenwaldeko kontzentrazio esparruak ezagutu zituen hara deportatua izan baitzen bere familiarekin batera eta lan honek, oinarrian, han bizitakoa kontatzen digu.

Hasiera batean, autobiografia bat dela pentsa genezake, baina ez da hala. Idazleak kontzentrazio esparruetan gertatutakoak nerabe baten ahotan ipintzen ditu baina honek kontatutako guztia ez da Kertészek bizitakoa.

Hainbat sari irabazi dituen lana da, irakurleari zer pentsatua ematen diona. Istorioa nerabe batek, ia haur batek, kontatu izanak, lehen esan bezala, leundu egiten du idatzitakoa eta idazleak irakurlearen esku uzten du ekintza "leun" horietatik gogorretara jausi egitea; era berean, honi buruz hausnartu eta sakontzea.

artzape

bazkideentzat lehiaketa

**EKAINEKO GALDERA:**

Getariaz gain, zein dira zeramika itsasoz ekarri zenaren hipotesia indartzen duen bi lekuren izenak?

Artzapen bazkidea bazara eta erantzuna baldin badakizu, e-mailez (artzape@topagunea.com), gutunez (kale nagusia 1-3 z/g) edo deitu (943 000 548) UZTAILAREN 18a BAINO LEHEN.

**Maiatzeko irabazlea:**

**KARMELE IRIBAR**

**Saria:**
**Hiru botilako Larchago ardo kaxa bat.**

BODEGAS Larchago

# ] uztaileko eta abuztuko agenda

**[Uztailaren 3a, osteguna]**
IÑIGO ARANBARRI idazlea "ZULO BAT URETAN" liburuari buruzko SOLASALDIA
**Noiz:** 20:00etan
**Non:** liburutegian
**Antolatzailea**:
Udaleko euskara saila

**[Uztailaren 13a, igandea]**
GIPUZKOAKO " ARTZAI-ZAKUR" TXAPELKETAren II. KANPORAKETA
**Noiz:** 11:30ean
**Non:** Meaga auzoan

## ] Irteerak

**[Uztailaren 8a, asteartea]**
SEIGNOSSE LE PENONeko UR PARKEra IRTEERA, euskal dantzetan dabiltzan haurrekin
**Antolatzailea**: Gure Txeru

## ] Zinema kalean

**[Uztailaren 30a eta 31]**
KALEKO ZINEA
**Noiz:** 22:00etan
**Non:** Harritarten

## ] Musika

**[Uztailaren 1a, asteartea]**
KONTZERTUA:
SIGHT INGS
(Boston, noise rock)
**Noiz:** 22:00etan
**Non:** Gaztetxean

**[Uztailaren 10a, osteguna]**
KONTZERTUA:
FUCKED UP
(Kanada, punk hardcore)
BURUX LEE
(Zarautz, punk-oi!)
STREET ALARM
(Zarautz, punk-oi!)
**Noiz:** 22:00etan
**Non:** Gaztetxean

## ] Kirola

SALBATORE DEUNA XI. PILOTA TXAPELKETA federatuentzat (kadeteak, jubenilak eta 22 urtetik beherakoak)
**Partida egunak:** astelehena eta asteazkena (19:00etatik aurrera) eta larunbata (18:00etatik aurrera)
**Non:** herriko frontoian
**Antolatzailea:**
Gure Txeru Elkartea
* Salbatoretan txapelketaren FINALA jokatuko da

**UDA 2008**
BELA, PIRAGUISMO, SURFA, URAZPIKO JARDUERAK, IGERIKETA, FRONTENIS, SPINNING ETA AEROBIC
**Izen ematea eta informazioa:** udaletxean (tel.: 943 896024), liburutegian (tel.: 943 896147) eta Turismo Bulegoan (tel.: 943 140957)

**[Abuztuaren 2a, larunbata]**
GETARIAKO VII. SALBATORE BIATLOIA
**Epea**: abuztuak 2 (11:00 arte),
**Non:** udaletxean

## ] Erakusketak

**[Uztailaren 24tik abuztuaren 4ra]**
HEGOARI BEGIRA 2008 (X. EDIZIOA)
**Non:** Gure Txerun
**Antolatzailea**:
ELAN-EUSKADI G.K.E

## ] Gaztelekua

### GAIA: UDA

**Udako ordutegia:** astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara / / 16:00etatik 20:00etara

**Noiz:**

**Uztailaren 1a, asteartea:**
ESKU PILOTA TXAPELKETA
**Uztailaren 2a, asteazkena:**
FIFA TXAPELKETA
**Uztailaren 3a, osteguna:**
TAILERRAK, TXAPA
**Uztailaren 4a, ostirala:**
HONDARTZAKO FUTBOLA
**Uztailaren 7a, astelehena:**
MUS TXAPELKETA
**Uztailaren 8a, asteartea:**
TAILERRA, BELARRITAKOAK
**Uztailaren 9a, asteazkena:**
MASAJE TAILERRA
**Uztailaren 10a, osteguna:**
KAMISETA TINTAKETA TAILERRA
**Uztailaren 11, ostirala:**
MALABAREAK
**Uztailaren 14a, astelehena:**
DARDO TXAPELKETA
**Uztailaren 15a, asteartea:**
TAILERRA, PULTSERAK
**Uztailaren 16a, asteazkena:**
FILMA
**Uztailaren 17a, osteguna:**
SASKIBALOIA
**Uztailaren 18a, ostirala:**
SUKALDARITZA
**Uztailaren 21a, astelehena:**
IRTEERA
**Uztailaren 22a, asteartea:**
IRTEERA
**Uztailaren 23a, asteazkena:**
FUTBOLIN TXAPELKETA
**Uztailaren 24a, osteguna:**
KARAOKEA
**Uztailaren 25a, ostirala:**
TAILERRA, PULTSERAK
**Uztailaren 28a, astelehena:**
SCALEXTRIC
**Uztailaren 29a, asteartea:**
PALA TXAPELKETA
**Uztailaren 30a, asteazkena:**
MERIENDA FESTA

## ] Kz gunea

**Noiz:** 10:00etatik 13:00etara
**Non:** Kultur Etxeko lehen solairuan
**Tutorearen uztaileko bisitak:** uztailaren 4an eta 18an, 15:00tatik 19:00etara

## ] Abuztua

**SALBATORE JAIETAKO TXAPELKETAK**

**[Abuztuaren 5a, asteartea]**
KOADRILEN ARTEKO HERRI KIROLEN V. OLINPIADAK
**Adina:** 16 urtetik gorakoentzat

**[Abuztuaren 8a, ostirala]**
UR-JOLASAK

**[Abuztuaren 9a, larunbata]**
XII. MARMITAKO TXAPELKETA
**Izen ematea eta informazioa:**
Udal bulegoetan

**FULDAIN farmaziaren zaintza egunak: uztailaren 21etik 27ra (biak barne)**

## ] akordatzen

# 1936ko bataioa

1936ko argazki horretan bi haurren bataioa ikus daiteke: Bartoloma eta Imanol Iribar dira haur horien izenak, eta euren amandreen besoetan ageri dira kale Nagusian: Milagros Mitxelena eta Salbadora Aizpurua dira amandreen izenak.

**Atal honetan jartzeko moduko argazki zaharren bat baduzu, deitu 943000548 telefonora edo artzape@topagunea.com helbidera bidali.**

## zorion agurrak

**Xabier Irigoien**
**Uztailak 10**
Zorionak gure mutilari etxeko denen partetik.

**Onditz Galdos**
**Uztailak 10**
Zorionak gure sorgintxoari eta 6 belarri-tirakada handi zure familia eta bereziki Ametsen partetik.

Norbait zoriondu nahi izanez gero, argazkia bere testutxoarekin Txeruko postontzian utzi edo eta Eskualtxetara eraman. Gogoratu! bazkideok doan daukazue eta bazkide ez zaretenok 4 € ordaindu beharko dituzue argazki bakoitzagatik.

### telefono interesgarriak

**Udal bulegoa ....943 896 024**
**Faxa .....943 140 190**
**e-mail: *udala@getaria.org***
**Kiroldegia .....943 140 432**
**Kirol-portua .....943 580 959**
**Taxiak**
**Segundo .....607 720 242**
**Jose Mari ....607 403 498**
**Udaltzaingoa ....943 896 146**
**Liburutegia .....943 896 147**
**Anbulatorioa ....943 140 653**
**Botika .....943 140 441**
**Herri Eskola.....943 140 729**
**SOSdeiak .....112**
**Kofradia.....943 140 200**

**artzape aldizkaria**
**943 000 548**
**artzape@topagunea.com**

ARRAINAK, ITXASKIAK, IZOZTUAK
ELKANO ARRAINDEGIA
KAIA Telefonoa: 943 140 192 20808 GETARIA

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN